

AZKOITIKO UDALA**TXOSTEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA
2021eko ekitaldiari dagokion Aurrekontua**

Udal honetako kontuhartzaileak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 6.3e) artikuluan agindutakoa betez, txosten hau ematen du aipatutako ekitaldirako aztertzen ari den aurrekontuari dagokionez:

TXOSTENA

- 1.- Aztertu den aurrekontuko diru-sarreraren aurreikuspenak zehazteko erabilitako oinarriak hauek dira:
 - Aurreko ekitaldian, eta aurtengo ekitaldian igarotako sei hilabeteetan, baliabide bakoitzak izandako etekina. (1., 2., 3. eta 4. kapituluak)
 - Ustez gertatuko diren zerga-unitate berriak, eta katastroko balioen igoera, berezko zergei dagokienez. (1. kapitulua)
 - Borondatezko zergetan ustez gertatuko diren zergapeko egitateen kopurua. (1. eta 2. kapituluak)
 - Ordenantza fiskalen eta prezio publikoen tasak, tarifak eta kuotak gehitzeko hartutako erabakiak. (1., 2. eta 3. kapituluak)
 - Udal Finantzaketarako Foru Fondoan dugun partaidetzan eta itundu gabeko zergetan dugun partaidetzan zenbatetsitako igoerak. (4. kapitulua)
 - Beste transferentzia eta diru-laguntza batzuen ondorioz –arruntak nahiz kapitalekoak– ezagutzen den edo espero den zenbatekoa. (4. eta 7. kapituluak)
 - Ondare-ondasunak besterentzearen ondorioz zenbatetsitako emaitza, balioespen teknikoaren arabera. (6. kapitulua)

- Ekarpenen kasuan, izenpetutako hirigintzako hitzarmenak eta konpromisoak.

- 3.- Aztertu den aurrekontuan, nahitaezkoak diren gastuei aurre egiteko beharrezkoak diren kredituak esleitu dira, hala nola: Eskatzekoak diren zorrak, zentsuak, pentsioak, finantza-kargak; nahitaezko izaera duten zerbitzuak emateari dagozkionak, langile, bulegoko material eta egoitzei dagozkienak; erakundeari ezarritako zerbitzuak ordaintzeko erabilitakoak, aurretiaz sinatutako hitzarmenen edo hartutako konpromisoen ondoriozkoak; eta behar eta premia nabarmeneko obrak eta instalazioak gauzatzeko direnak.

- 4.- Aztertu den aurrekontuan aurreikusitako diru-sarrerak aipatutako aurrekontuan esleitutako gastuetarako kreditu guztiak estaltzen dituzte, eta, beraz, aipatutako aurrekontuak hasierako defizitik ez duela ondorioztatzen da.

- 5.- 2/2006 LEGEak, ekainaren 30ekoak, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoak, 114. Artikuluan dio Udalak bere urteroko aurrekontuetan Udal-ondararako izendatutako kopuruak ezin izango du, inola ere, diru sarreren I eta II.kapituluen batuketa osoaren %10 etik behera jo.

Artículo 114 Consignación presupuestaria con destino al patrimonio municipal de suelo

- 1.- La cantidad consignada por los ayuntamientos en el ejercicio anual de sus presupuestos municipales con destino a patrimonio municipal de suelo no podrá ser inferior al 10% de la suma total a que asciendan los capítulos I y II de ingresos. La memoria explicativa de los presupuestos deberá precisar qué porcentajes mínimos de dicha cantidad se prevén para atender cada uno de los destinos de los patrimonios municipales de suelo.

- 2.- La regla establecida en el apartado anterior sobre importe mínimo de la consignación presupuestaria se entiende referida a periodos cuatrienales, por lo que las previsiones inferiores o superiores en ejercicios presupuestarios concretos podrán ser compensadas, dentro de un mismo periodo cuatrienal, por previsiones de signo contrario en ejercicios presupuestarios posteriores, siempre y cuando se garantice para el conjunto de cuatro años el cumplimiento del promedio del 10% anual señalado en el apartado anterior.

Artículo 115 Destino de los bienes y recursos

- 1.- Los bienes no destinados a dotaciones públicas y los recursos integrantes de los patrimonios públicos de suelo se destinarán preferentemente a la construcción de viviendas sometidas a algún régimen de protección pública y al coste de obras de urbanización en áreas y sectores residenciales con presencia, en todo o en parte de los mismos, de viviendas sometidas a algún

régimen de protección pública para su desarrollo en régimen de ejecución pública. Además se podrán destinar a:

a) Adquisición de la propiedad de los bienes y derechos sujetos a áreas de reserva municipal de suelo y a áreas sometidas a los derechos de tanteo y retracto.

b) Obras de rehabilitación o construcción de dotaciones públicas y sistemas generales en zonas degradadas.

c) Adquisición y promoción pública de suelo para actividades económicas de fomento o interés público.

d) Rehabilitación del patrimonio histórico y cultural.

e) Construcción, rehabilitación o mejora de equipamientos colectivos municipales.

2.- En el supuesto previsto en la letra c) del apartado anterior, cuando la promoción pública tuviera carácter comarcal concertado entre diversos municipios asociados entre sí y, en su caso, con otras administraciones públicas o sus organismos o entidades dependientes, los bienes y derechos que por dicha actuación hayan de incorporarse al patrimonio municipal del suelo, una vez capitalizados, podrán destinarse a la adquisición de suelos para dicha finalidad en municipio diferente si así se acuerda entre los municipios intervinientes.

115. artikulua zehazten du ondasun eta baliabideen xedea zein den. Horien artean degradatutako aldeetan birgaitzeko obrak egitea, edo alde horietan zuzkidura publikoak eta sistema orokorrak eraikitzeke obrak egitea da.

Aurrekontuaren eranskinean zehazten da Udal ondarearen saldoa.

6.- KONPROMISOZKO KREDITUAK:

2021 urtean Udalaren aurrekontuan jasotako konpromiso kredituen kopurua 282.519,18 €koa da.

21/2003 Foru Arauak 22.2 atalean zehazten diren limiteak aztertu dira. Udalaren era kontsolidatuan likidatutako azken ekitaldiko (2019) eragiketa arrunten ziozko baliabideak 15.802.667,16€ izan ziren eta honen % 25a 3.950.666,79 dira, beraz ez legoke arazorik konpromisozko kreditu hauek onartzeko.

Azkoitia Lantzen, S.A. sozietateak datozen ekitaldietarako hartutako konpromisoko kredituei dagokienez, azpimarratu behar da jaso egin direla

aurreko ekitaldietan hartutako konpromiso guztiak. Horietan guztietan, 10.1 Txalon Erreka hiri-eremuko hiritartze gastuaren kasuan eta Eginoko berriko Lixibiatuen tratamenduan izan ezik, ez dago gauzatze urtea konprometituta; horrenbestez, eranskinetan zehaztu egiten dira, gauzatze eperik finkatzeke .

Txalon Erreka 10.1 eremuko hiritartze lanen lehenengo fasearen %60, hau da, 1.633.558 €, 2021eko aurrekontuan islatu da. Ekitaldi honetan gauzatuko dira eta Azkoitia Lantzenek, bere baliabide propioak erabiliko ditu hauek finantzatzeko.

Hala ere kontuan hartu behar da, baliabide propioen kopuruan, oso garrantzi handia duela Eusko Jaurlaritzarekin bilkura osoak abenduaren 30ean onartuko duen hitzarmena, non Txalon Erreka 10.1 eko 1, 2 eta 3 partzelen salmentaren prezioa jasoko duela Azkoitia lantzenek .

2021ean i 676.952,27 € jasoko ditu 2 eta 3 partzelen salmentagatik eta 2022. Urtean 1 partzela eta 403.958,00 € jasoko ditu

Azkoitia Lantzenen Konpromisoen kopurua guztira 8.122.490,91 € dira.

Arlo honetan kontuan hartu behar da Azkoitia Lantzenen bideragarritasun plana 2017-2020 Udalak 2016ko abenduan Azkoitia lantzen eginiko doako ondare lagapenaren baldintzaren betetzeari buruzko informe ekonomikoan kontu-hartzaileak honako hau esan zuela:

Kontuhartzaile honek dio:

2017-2020 Bideragarritasun planak oso argi uzten du nahitaez txalon Erreka eremuko urbanizazio lanak finantzatzeko Azkoitia Lantzenek gaur egun bere esku dituen partzelak saldu beharko lituzkeela, hain zuzen Insausti eremukoak. Bertako partzelak ezaugarri ezberdinak dituztenez saltzen duen partzelaren arabera agian aparteko finantziarioa beharko luke. Kasu honetan azterketa juridikoa egin beharko litzateke arrazionalizazio legearen mugak aztertuz eta Udalaren aurrekontuetan jaso beharko litzateke erosketan, Udalaren egoera finantzarioan zuzeneko eragina edukiz.

Honez, Azkoitia Lantzenek hainbat erabaki hartuz gero bere konpromisoak betetzeko ahalmena duenez, 2016ko abenduaren 28an Bilkura Osoak onarturiko Lagapenak Lurzoruaren legea eta arrazionalizazio legeen baldintzak betetzen ditu eta lagapenaren xedea bermatzeko Azkoitia Lantzenek eman beharreko pausoak "bideragarritasun planean azaltzen dira.

Plan honen 5. Eranskinean azaltzen diren 10 alternatibak urtez urte 2017, 2018, 2019 eta 2020ko ekitaldiaren likidazioetan aztertuko dira. Bertan kontuhartzaileak azalduko du Txalon Erreka eremuko konpromisoak betetzeko onartu diren ekintzak eta urbanizazio lanak exekutatzeko diruzaintzako beharra, ondare desoreka edota bi ekitaldi segidan emaitza negatiboa aurreikusiko balira, aparteko neurriak hartzeko eskatuko dio Azkoitia Lantzenen administrazio kontseiluari.

Honez lagapenaren baldintza bete denez bere efektuak sortzen ditu.

Azkoitian, 2017ko apirilaren 11an
Kontu-hartzaileak

Beraz, 2020ko ekitaldiaren likidazioan bideragarritasun planak dioen 10
alternatibatatik zeintzuk bete diran azterturko da.

Azkoitian, 2020ko abenduaren 18an
Fondoen kontuhartzailea